

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA  
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

# PROBA OROKORRA

2021eko PROBA



**IRUZKIN**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

## Zer ikusi, hura ikasi

Etorkizuneko ofiziorik gehienak diseinatzeke dauden honetan, bada lanbide bat haur eta nerabeen arreta erabat bereganatu duena: youtuberra. Geroa bezain ezezaguna izaki gehientzat. Gutxiengo baten ogibide baino ez da. Hala ere, gero eta gehiagok aipatzen dute bizibide desiragarri gisa.



Gazteen euskal behatokiak kaleratutako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen aisialdirako jarduera gustukoena dira musika entzutea, klean egotea eta ikus-entzunezkoen kontsumoa. Gainera, diagnostiko berean, honako datu hau ere irakur daiteke: Whatsapp, Facebook, Instagram eta Youtube dira gehien erabiltzen diren sareak (bideo plataformaren erabiltzaile dira gazteen %70,6 eta eguneroko erabiltzaile aktibo hamarretik lau).

Youtube da, egunero, 30 milioi erabiltzaile aktibo baino gehiago biltzen dituen sarea. 24 ordutan, 5.000 milioi bideo ikusten dira bertan, edo milioi bat eduki ordu (Netflix eta Facebook sareetako bideo kontsumoa batuta baino gehiago). Datu-basearen handitze erritmoa ikaragarria da: minutuero 300 ordu bideo argitaratzen dira. Alimaleko eskaintza. Gaurko haur eta nerabeak sakelakoaren garaian hazi eta hezi dira. Aro digitaleko espezie horiek ez dute oroitzen analogikorik, eta hamar urte ingururekin hasten dira sare sozialetan ekinean. Horiek dira duela 13 urte sortutako bideo plataformako youtuber izan nahi dutenak, youtuberrak beraien erreferente gisa dituztenak. Komunikabideetan, *youtuber* hitzaren ondotik agertu ohi da polemika gehienetan, eta hiztegietan ez da oraindik kontzeptua gehitu. Gainontzeko belaunaldiontzat, oro har, fenomeno nahiko ezezaguna da.

Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira beraien antzekoak direlako, klean gurutza ditzaketelako, parekoak zaizkielako; finean, edozeinek eskura dezakeen ospea lortu dutelako. *Influencer* sozial horien existentziaz ezertxo ere ez dakigula harrapa gaitzake, beraz, edozein kaletan youtuber bat ezagutzean sor daitekeen iskanbilak. Entretenimendua da nagusi, eta dibertigarriak diren kalitatezko bideoak dira ikustaldirik gehien pilatzen dituztenak. Haur eta nerabeek lagunekin hitz egiten dute ikusten dituzten bideoen inguruan, beste jarraitzaile batzuekin batera txatak sortzen dituzte, fan profilak jarraitzen dituzte, youtuber gogokoenei mezuak igortzen dizkiete, eta *fan meeting*-etara



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

joaten dira. Bizitzaren parte eta zati garrantzitsu da Youtube, identitate-eraikuntzan eta portaeran eragiten duen fenomenoak: hizketa gaiak, kezka, estetika, hizkuntza... badira imitatzeko zenbait helduleku.

Ukaezina da youtuberren fenomenoak ondorio sozial eta kulturalak dakartzala, hortaz, alfabetatze mediatiko-teknologikoan murgiltzea dagokigu denoi —haur, nerabe, horien guraso, irakasle eta beste. Eztabaidari behar bezala heltzeko territoria esploratu eta ezagutzea izan ohi da lehenbiziko urratsa. Agian, youtuber eskola bat sortu behar genuke. Bitartean, ikusi eta ikasi.

Lanbidez, youtuber



LIBE MIMENZA CASTILLO. EHUKO IRAKASLEA 2020ko urriak 14

<https://www.berria.eus/paperekoa/1870/029/002/2018-05-27/zer-ikusi-hura-ikasi.htm>

### Testua antolatzeko kontuan hartu egitura hau:

- Sarrera-paragrafoa: gaia aurkezteko eta zure iritzia emateko.
- Zure ideiak garatzeko bi paragrafo: aldeko eta kontrako argudioak garatu.
- Azken paragrafoa: ondorioak jasotzeko.

Kontuan hartu, halaber, aholku hauek:

- Adierazi zeure iritzia, ez egin testuaren laburpena.
- Testuaren zirriborroa egin, ideiak antolatzen laguntzeko.
- Zirriborroa azterketarekin batera entregatu.
- Testua amaitu ondoren, gainbegiratu eta azken zuzenketak egin.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu- generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
- Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio- zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

### EBAZPENA IRUZKINA (2021)

Bi txantiloiredu proposatzen dira. Bata zein bestea erabil daiteke.

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo 0,7-1 ptu.	Ondo 0,5-0,6 ptu.	Gaizki 0,2-0,4 ptu.
<b>Egokitasuna (2 puntu)</b>	– Testuak hizkuntza- erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	– Testua ondo egokitzen zaio proposatutako helburuari eta eskatutako testu generoari.			
	<b>Egokitasuna</b>	( .....puntu)		
<b>Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)</b>	– Egitura argia eta zehatza du: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	– Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	– Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	– Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu. Puntuazio zeinuak ere ondo erabiltzen ditu.			
	<b>Koherentzia eta kohesioa</b>	( .....puntu)		
<b>Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia (4 puntu)</b>	– Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	– Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren denbora, aspektua eta komunztadura			
	– Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			
	– Ortografia arauak betetzen ditu			



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

---

	<b>Lexikoa, sintaxia, morfologia eta ortografia</b>	<b>( .....puntu)</b>
	<b>GUZTIRA</b>	.....



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

## Txantiloia 2: Deskripzio sintetikoa

8-10 puntu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...)</li><li>- Erregistro egokia du.</li><li>- Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du.</li><li>- Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute.</li><li>- Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira.</li><li>- Ez du akats morfologikorik ezta ortografikorik ere.</li></ul>
7-8 puntu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du.</li><li>- Ideiak et argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute.</li><li>- Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...)</li><li>- Testuak ez du ia akatsik, baten bat baina ez sistematikoak eta ez dute ulermena eragozten.</li></ul>
5-6 puntu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman, Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea.</li><li>- Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziek ez dute oztopatzen ulertzea.</li><li>- Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak, batzuetan jauziak antzeman daitezke.</li><li>- Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har.</li><li>- Ortografian eta puntuazioan akatsak daude baina ez oso larriak.</li></ul>
3-4 puntu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ez zaio eskatutakoari lotzen.</li><li>- Ez du hitz kopuru minimoa.</li><li>- Ulergarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak, erreferentzia galtzea...</li><li>- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak antzematen dira.</li><li>- Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez.</li><li>- Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.</li></ul>
1-2 puntu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ez du eskatutakoa bete.</li><li>- Hitz kopuru minimoa ere ez du bete.</li><li>- Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.</li><li>- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan egiten dituen akatsak ulermena eragozten dute.</li><li>- Nabarmenak dira komunikazio eta hizkuntza gabeziak.</li></ul>



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

**IRUZKINA**

- Oinarrizko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa, komunztadura, perpaus osagarriak

### EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 2.7. Eskatutako testu-motaren berezko eskemen arabera ideiak antolatu, planifikatu eta informazioa koherentziaz antolatzea.
- 1.5. Multzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, ondo lotuak eta zuzenak sortzen ditu.
- 2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilita.
- 4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.